



EBAZPENA, 2023ko ABUZTUAREN 31koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IREKITA JARRAITZEN DUTEN IRAKASLE ORDEZKOGAIEN ZERRENDAK DOKUMENTU BAKAR BATEAN BATU ETA ARGITARA EMATEN DITUENA, 2015/09/18tik AURRERA IZAN DIREN ZERRENDAK IREKITZEKO DEIALDIEN ONDORIOZ.

2015/09/18tik aurrera gaur arte ireki diren zerrenda desberdinen ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenen premiak behar bezala betetzeko, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2015eko azaroaren 11ko, 2016ko otsailaren 19ko, 2016ko azaroaren 21eko, 2017ko urtarrilaren 20ko, 2017ko martxoaren 9ko, 2017ko martxoaren 29ko, 2017ko abuztuaren 2ko, 2017ko azaroaren 22ko, 2017ko azaroaren 24ko, 2018ko urtarrilaren 15eko, 2018ko abuztuaren 2ko, 2018ko azaroaren 21eko, 2019ko martxoaren 5eko, 2019ko martxoaren 5eko, 2019ko ekainaren 7ko, 2019ko urriaren 25eko eta 2021eko urtarrilaren 26ko ebazpenen bidez hartu zen erabakia Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketako Sektore Berezietako Irakasle Espezialisten, Hizkuntzen Irakaskuntzetan, Musika Irakaskuntzetan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzetan eta Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-Mailako Irakaskuntza Artistikoetan mailetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda batzuek irekita jarraitzeko, behar zen denboran eta adierazitako ebazpen bakoitzaren I. eta II. eranskinetan adierazitako baldintzen arabera.

Ebazpen hau ematen dugu irekita jarraituko duten zerrenda guztiak, 2015/09/18tik aurrera egin diren zerrenden irekieren deialdi desberdinetatik datozenak, argitu eta agiri bakar batean ikasturtean biltzeko asmoz. Dauden ordezkapenen premiak bermatzeko, zerrenda horiek irekita mantentzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Dokumentu bakar batean batu eta argitara ematea, 2015/09/18tik aurrera zerrendak irekitzeko egin diren deialdien ondorioz, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko irekita jarraitzen duten izangaien zerrendak. Irekitako zerrendak ebazpen honen I. eranskinean agertzen dira.

Bigarrena.- Ebazpen honen II. eranskinean xedatutako baldintzen arabera jarraitzen dute irekita zerrendek.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 31



I. ERANSKINA

IREKITA MANTENTZEN DIREN ZERRENDAK 2023/2024 IKASTURTEA

IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
MAILA: HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA		
100	HE 2	Islamgo Erljioa
950	HE 2	Haur Hezkuntza
951	HE 2	Lehen Hezkuntza
952	HE 2	Euskara
953	HE 2	Aholkularia
954	HE 2	Ingelesa
955	HE 2	Frantsesa
956	HE 2	Gorputz Hezkuntza
957	HE 2-HE 1	Musika
958	HE 2	Hezkuntza Berezia: Pedagogia Terapeutikoa
959	HE 2	Hezkuntza Berezia: Entzumena eta Hizkuntza
1080	HE 2	Hizkuntza indargarria
MAILA: BIGARREN HEZKUNTZA		
102	HE 2-HE 1	Frantsesa
103	HE 2-HE 1	Ingelesa
104	HE 2-HE 1	Alemana
106	HE 2	Euskara eta Euskal Literatura
108	HE 2	Erljio Katolikoa
124	HE 2	Geografia eta Historia
126	HE 2-HE 1	Latina
127	HE 2-HE 1	Grekoa
131	HE 2-HE 1	Musika
132	HE 2	Filosofia
133	HE 2-HE 1	Italiera
134	HE 2-HE 1	Gaztelania eta Literatura
146	HE 2-HE 1	Kultura Klasikoa
202	HE 2	Fisika eta Kimika
205	HE 2	Ekonomia
224	HE 2	Matematika
237	HE 2-HE 1	Informatika
239	HE 2	Marrazketa
255	HE 2	Biologia eta Geologia
256	HE 2	Hezkuntza Orientabidea
298	HE 2	Laneko prestakuntza eta orientabidea



IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
327	HE 2	Gorputz Hezkuntza
401	HE 2	Teknologia
986	HE 2	Curriculum desberdinak eratzeko Hizkuntza eta Gizartea
989	HE 2	Curriculum desberdinak eratzeko Zientifiko eta Teknologikoa
1501	HE 2	Enpresen administrazioa
1502	HE 2	Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa
1503	HE 2	Elikagaien industriako prozesuak
1504	HE 2	Nekazaritzako ekoizpen prozesuak
1505	HE 2	Arte Grafikoetako prozesuak eta produktuak
1506	HE 2-HE 1	Ibilgailuak mantentzeko ant. eta prozesuak
1507	HE 2	Eraikuntza zibilak eta etxegintza
1508	HE 2-HE 1	Fab. Mekanikoko ant. eta proiektuak
1509	HE 2-HE 1	Energia sistemen antolakuntza eta proiektuak
1510	HE 2-HE 1	Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
1511	HE 2-HE 1	Sistema Elektronikoak
1512	HE 2	Ostalaritza eta Turismoa
1513	HE 2-HE 1	Komunikazio-prozesuak eta -bideak
1514	HE 2-HE 1	Arotzeriako eta altzarigintzako prozesuak eta produktuak
1515	HE 2-HE 1	Nabigazioa eta Itsas Instalazioak
1516	HE 2	Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Produktuak eta Prozesuak
1517	HE 2	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak
1518	HE 2	Analisiak eta industria kimika
1519	HE 2-HE 1	Prozesu sanitarioak
1520	HE 2-HE 1	Prozesu Diagnostiko Klinikoak eta Produktu Ortoprotesikoak
1521	HE 2	Esku-hartze soziokomunitarioa
1522	HE 2	Akuikultura-prozesuak
1541	HE 2	Administrazio-kudeaketako prozesuak
1542	HE 2	Merkataritza-prozesuak
1543	HE 2	Elikagaien Elaborazio lanak eta ekipoak
1544	HE 2	Nekazaritzako Operazioak eta Tresneria
1547	HE 2-HE 1	Eraikuntza-proiektuen bulegoa
1548	HE 2-HE 1	Fabrikazio Mekanikoko Proiektuetarako Bulegoa
1549	HE 2-HE 1	Bero eta Fluido Ekipoen Instalatz. eta Manten. Lanak
1550	HE 2-HE 1	Instalazio Elektroteknikoak
1551	HE 2-HE 1	Ekipo Elektronikoak
1554	HE 2-HE 1	Irudi eta Soinuaren Teknikak eta Prozedurak
1555	HE 2-HE 1	Aplikazio Informatikoetako Sistemak
1556	HE 2	Laborategia
1557	HE 2	Prozesuen operazioak
1559	HE 2-HE 1	Makinak, Zerbitzuak eta Produkzioa



IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
1566	HE 2-HE 1	Diagnostiko Kliniko eta Produktu Ortoprotesikoen Prozedurak
1567	HE 2-HE 1	Osasun eta Lagunza Prozedurak
1568	HE 2	Gizartearentzako Zerbitzuak
1570	HE 2-HE 1	Hazkuntza eta Laborantzako Instalazio eta Ekipoak
1581	HE 2-HE 1	HHE Komunikazio arloa (Gaztelania)
1582	HE 2-HE 1	HHE Komunikazio arloa (Ingelesa)
1583	HE 2	HHE Komunikazio arloa (Euskara)
1584	HE 2-HE 1	HHE Komunikazio arloa (Frantsesa)
1585	HE 2	HHE Esparru Zientifiko Teknikoa
1586	HE 2	HHE Gizarte Ezagueraren Esparrua
1970	HE 2	Hizkuntza indargarria
1971	HE 2	Islamgo Erlijioa

MAILA: LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALISTAK

IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
1545	HE 2-HE 1	Arte Grafikoetako Produkzioa
1546	HE 2-HE 1	Ibilgailuen Mantentze Lanak
1552	HE 2-HE 1	Sukaldaritza eta gozogintza
1553	HE 2-HE 1	Jatetxe-arloko Zerbitzuak
1558	HE 2-HE 1	Zurgintzako eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa
1560	HE 2-HE 1	Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea
1561	HE 2-HE 1	Soldadura
1562	HE 2-HE 1	Patroigintza eta jantzigintza
1563	HE 2-HE 1	Estetika
1564	HE 2-HE 1	Ile-apainketa

MAILA: HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK

750	HE 2-HE 1	HEO Ingelesa
751	HE 2-HE 1	HEO Frantsesa
752	HE 2-HE 1	HEO Alemana
753	HE 2	HEO Euskara
754	HE 2-HE 1	HEO Errusiera
755	HE 2-HE 1	HEO Gaztelania
1756	HE 2-HE 1	HEO Italiera
1757	HE 2-HE 1	HEO Portugalera

MAILA: MUSIKAKO IRAKASKUNTZAK

801	HE 2-HE 1	Pianoa
802	HE 2-HE 1	Biolina



IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
803	HE 2-HE 1	Biolontxelo
804	HE 2-HE 1	Arpa
805	HE 2-HE 1	Gitarra
807	HE 2-HE 1	Biola
808	HE 2-HE 1	Kontrabaxua
810	HE 2-HE 1	Oboea
811	HE 2-HE 1	Klarinetea
812	HE 2-HE 1	Fagota
813	HE 2-HE 1	Saxofoia
814	HE 2-HE 1	Tronpa
815	HE 2-HE 1	Tronpeta
816	HE 2-HE 1	Tronboia
817	HE 2-HE 1	Tuba
818	HE 2	Txistua
819	HE 2-HE 1	Kantua
829	HE 2-HE 1	Eskusoinua
831	HE 2-HE 1	Organoa
851	HE 2-HE 1	Perkusioa
858	HE 2-HE 1	Musikaren historia
875	HE 2-HE 1	Gitarra elektrikoa
881	HE 2-HE 1	Musika-hizkuntza
883	HE 2-HE 1	Korua
896	HE 2-HE 1	Klabezina
912	HE 2-HE 1	Zeharkako txirula
913	HE 2-HE 1	Moko txirula
917	HE 2-HE 1	Konposizioaren oinarriak
922	HE 2-HE 1	Orkestra
1802	HE 2-HE 1	Baxu elektrikoa
MAILA: ARTE DRAMATIKOKO ETA DANTZAKO IRAKASKUNTZAK		
1116	HE 2-HE 1	Akrobazia
1117	HE 2-HE 1	Arte dramatikoaari aplikatutako kantua
1118	HE 2-HE 1	Karakterizazioa eta jantziak
1119	HE 2-HE 1	Arte dramatikoaari aplikatutako dantza
1120	HE 2-HE 1	Ebakera eta ahozko adierazpena
1121	HE 2-HE 1	Zuzendaritza eszenikoa
1122	HE 2-HE 1	Dramaturgia
1123	HE 2-HE 1	Espazio eszenikoa
1124	HE 2-HE 1	Interpretazioa
1125	HE 2-HE 1	Literatura dramatikoa
1126	HE 2-HE 1	Teknika eszenikoak



IKASGAI-KODEA	ESKATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IKASGAIA
1127	HE 2-HE 1	Artearen teoria eta historia
1128	HE 2-HE 1	Antzerkiaren teoria
1129	HE 2-HE 1	Dantza klasikoa
1130	HE 2-HE 1	Dantza garaikidea
1131	HE 2-HE 1	Dantzaren historia
1132	HE 2-HE 1	Dantzarako errepertorioa pianoarekin
1133	HE 2-HE 1	Konposizio koreografikoa
MAILA: ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASKUNTZAK		
1607	HE 2	Marrazketa artistikoa eta kolorea
1608	HE 2-HE 1	Marrazketa teknikoa
1609	HE 2-HE 1	Barrualdeen diseinua
1612	HE 2-HE 1	Diseinu grafikoa
1620	HE 2-HE 1	Materialak eta Teknologia: Diseinua
1621	HE 2-HE 1	Ikus-entzunezko baliabideak
1623	HE 2-HE 1	Industria-antolakuntza eta -legeria
1625	HE 2	Bolumena
1627	HE 2-HE 1	Informatika-baliabideak: Diseinu Grafikoa
1628	HE 2-HE 1	Informatika-baliabideak: Barrualdeen diseinua
1702	HE 2-HE 1	Artearen Historia
1729	HE 2-HE 1	Argazkigintza



II. ERANSKINA

ESKAERAK BETETZEA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (ESKAKIZUNAK)

ESKAERA BETETZEA:

Eskaerak eskura egongo dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) / Eremu pertsonala / “Izapideak langileen sailarekin” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi irekia dutenak” estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/ / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenetarako izangaiak / Irekita mantentzen diren zerrendak / Eskabidea eta dokumentazioa on-line aurkeztea eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> estekan klik eginez.

Pasahitzik ez baduzu edo ez baduzu gogoratzen, <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> helbidean eskuratu dezakezu, “Pasahitza lortzea (edo berreskuratzea)” estekan klik eginez.

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea ixten ez bada (aipatutako atala markatuz), eskabidea ez dela aurkeztu ulertuko da.

BALDINTZAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA:

Zerrendara/zerrendetara sartzeko eskatutako baldintzak egiaztatzeke agiriak besterik ez da/dira entregatu beharko. Ordezkoaiei buruzko aginduaren I. eranskinean adierazitako merezimenduak geroago aurkeztu beharko dira, behar den urteko birbarematze-prozesuan.

3.1.- Titulazio akademikoa/tituluaren tasak ordaindu izanaren ziurtagiria, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta hizkuntzen egiaztapena **formatu elektronikoa** eta ondorengo moduan aurkeztuko dira:

Eskaera on-line betetzeko unean, “Prestakuntza akademikoa - titulu” atalean, gaineratuko da. Aurkezten den titulu/ziurtagiria zein den adieraziko da eta, ondoren, “Titulu atxikitu” eremuaren bidez, dokumentua, pdf formatuan, gehituko da (gaineratu beharreko fitxategi bakoitzaren tamaina ezin da 3 MBtik gorakoa izan).

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke dagokionez, ez dira entregatu beharko Euskal Autonomia Erkidegoko EGA eta HEO eta HABE ziurtagiriak. Prozesu honetan parte hartzeak interesatuak, datu horiek Euskarako Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatzeko, Hezkuntza Sailari baimena ematea dakar.

Salbuespen gisa, dokumentazioa formatu elektronikoa gaineratu ez bada, paperezko formatuan aurkeztu ahal izango da, hiru laneguneko epean, eskaera itxi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako Pertsonal Irakaslearen Unitateei zuzendutako idazkiaren bidez eta ondorengo tokietan:

- Herritarrentzako zerbitzuko Zuzenean bulegoetan:
 - Zuzenean Bizkaian (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo)
 - Zuzenean Gipuzkoan (Andia 13, 2003 Donostia)
 - Zuzenean Araban (Ramiro Maeztu 10 behe, 01008 Vitoria-Gasteiz)



- edo urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako gainontzeko tokietan.

3.2.- Baimenak: ondorengo baldintzak kontsultatzeko baimena eman ahal izango zaio Hezkuntza Sailari eta, kasu horretan, ez dira egiaztagiriak aurkeztu beharko:

- * Identitatea (NANa, NIE, beste batzuk).
- * Delitu sexualak (Urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoaren 13.5. art.).

Aurreko baldintzak kontsultatzeko baimena eman ezean, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskaerak eskatutako baldintzak beteko ez balu, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko; horretarako 10 egun baliodunak izango ditu. Egingo ez balu, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

OHARRA: ekipo informatikorik ez duten pertsonak eskabidea egin ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren KZGunea zentro publikoetan, eta eskakizunak egiaztatze dokumentazioa on-line erantsi (betiere USB memoria edo disko gogor batean digitalizatuta badaramate), aldeztu aurretik **hitzordua** eskatuta (KZGuneen zerrenda eta kokapena honako helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri: www.kzgunea.eus).

BALDINTZAREN INFORMAZIOA

1.- Titulazioa:

Espezialitate bakoitzerako eskatutako titulazioa egiaztatu beharko da, aipatutako 2012ko abuztuaren 27ko aginduak Espezialitate eta titulazioen taulari buruzko III. Eranskinean xedatutakoaren arabera, zehazten diren ondorioekin. Taula hori kontsultatzeko (gaurkotuta, egindako aldaketak barne) <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-ordezkapenak-arauak/web01-a3holair/eu/> jo beharko da

2.- Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoa:

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izatea egiaztatu beharko da Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako Sektore Bereziakoa eta Hizkuntzen Irakaskuntzetako espezialitate guztietan.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza (abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Agindua) egiaztatuko da gaitasun pedagogikoaren ziurtagiriaren, espezializazio didaktikoaren tituluaren edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen dituen Masterraren titulu ofizialaren bidez.

2008/2009ko ikasturteak bukatu aurretik bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete jarraian edo etenekin, behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, haien irakaskuntza-espezialitateak azaroaren 8ko 1834/2008 errege dekretuan arautzen diren maila eta irakaskuntzetan, irakatsi dutela egiaztatzen dutenei, irakaskuntza hori aipatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide gisa aitortuko zaie.



Halaber, Maisu edo Maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren irakaslearen, Lehen Hezkuntzako Maisu edo Maistraren, Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentziaturaren tituluak, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa jasotzen duen lizentziatura edo titulazio baliokidea, dituztenei baldintza hori izatetik salbuetsiko zaie, titulu horiek 2009ko urriaren 1a baino lehenago lortu badituzte.

Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako zerrenden kasuan, haien titulazioaren ondoriozko arrazoiengatik abenduaren 27ko ECI/3858/2007 aginduak araututako Masterreko ikasketara sartu ezin diren pertsonak, hots, maila horretako irakaskuntzetan klasea ematearen ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat dutenek (otsailaren 23ko 276/2007 errege dekretuaren VI. Eranskina, BOE, 2007-03-02), maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, 100.2. artikuluan eskatutakoaren baliokidea den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutela egiaztatzeko ziurtagiri ofizial bat aurkeztu beharko dute. 2014ko irailaren 1a baino lehenago bi ikasturte osotan, edo hamabi hilabetetan jarraian edo etenekin, behar bezalako baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan irakatsi izana egiaztatzen dutenek ez dute prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren baldintza bete beharko.

3.- Adin txikiko babesa:

Adin Txikikoa Juridikoki Babesteari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoko 13 artikulua 5 atalean xedatutakoaren arabera (haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 legearen bidez sartua), sexu-askatasunaren eta osotasunaren kontrako delituen batengatik -sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeen galaraztea eta gizakien trafikoa sartzen dira delitu horietan-, sententzia irmoaren bidez zigorrik jaso ez izana izango da adin txikikoekin ohiko kontaktua izatea dakarten profesioetan aritzeko baldintza. Horretarako, sexu-gaizkileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko da, baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, edo on-line eskabidean erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da, Hezkuntza Saila Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean datuak kontsultatu ahal izateko esanbidezko baimena ematen diona; horretarako, “Adingabearen babesa” laukia markatu beharko da.

Ordezko gaiak, lanpostu bat betetzeko deitzen zaienean, ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute edo Sailak kontsulta egingo du (on-line eskaeran adierazpen arduratsua, datuak Sexu Delitu Egileen Erregistro Zentralean kontsultatu ahal izateko berariazko baimena sartuko duena, bete badu). Adierazitako delituengatik zigorra jaso badute edo aipatutako ziurtagiria aurkeztu ez badute (kontsultatzeko baimena eman ezean), prozedura honetan parte hartzeagatik izan zitzaketan eskubide guztiak galduko dituzte.

ESKAERAREN ORDENA ETA EGOERAREN KONTSULTA

Eskaerak sarrera-ordenaren arabera onartuko dira eta eskatzaile bakoitzak haien egoera (baloratzearen zain, onartuak edo ez onartuak) kontsultatzeko aukera izango du; horretarako, “Kontsulta pertsonalizatu”-en atalean egin dezake, erabiltzaile eta pasahitza sartuz. Eskaera onartu gisa agertzeak ordezko gaiak ordezkapenak egiteko deitu ahal izatea ekarriko du, eskaera aurkeztu den data eta ordua kontuan hartuta, betiere urteko birbarematze-prozesuaren ondoriozko zerrenda orokorretan libre dauden ordezko gaiak ez badaude.



BIRBAREMAZIOA

Geroago, merezimenduen baremoaren arabera (2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskina) ordenatuko dira eskaerak, urtero aurrera eramaten diren birbaremazio prozesuetan.

Ikasturtean aurkezten diren eskaera berriak ikasturte bakoitzaren birbaremazio prozesuan sartuko dira, prozesua tramitatzeko epeen arabera prozesu horri hasiera ematen dion Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenean zehazten den azken egunera arte. Ebazpen horretan zehazten den egunaren ondoren aurkeztutako eskaerak hurrengo ikasturtean birbaremazio prozesuan sartuko dira.

Birbaremazio prozesu horren barruan, zerrenda orokorrera sartzeko eskatutako baldintzak betetzeagatik zerrenda horretan dauden pertsonen zerrenda emango da argitara, bai eta baldintzak ez betetzeagatik zerrendan egon ezin direnak ere. Zerrendara sartu ez direnek, ados ez badaude, izango dute prozesuaren fase bakoitzean behar diren erreklamazioak edo errekursoak aurkezteko aukera.